

IRAKASLEAK. SENTSIBILIZAZIOA

1. TRESNA. LA MUJER, COSA DE HOMBRES. 50 AÑOS DE RTVE. ISABEL COIXET¹

<http://www.rtve.es/alcarta/videos/50-anos-de/50-anos-mujer-cosa-hombres/1491834/>

Metodologia: Gogoeta pertsonala egin ondoren, talde txiki heterogeneoetan lan egin behar da, ondoren, denak batera, talde handian, emaitzak lantzeko.

Kode Penalak, 1944a eta 1963a artean, senarrak emaztea erailtzea toleratzen zuen, adulterioa egonez gero; gauza bera gertatzen zen aitak 23 urtetik beherako alaba ezkongabeak eta haien mutil-lagunak hilez gero ezkondu gabe harreman sexualak izateagatik.

1. Aztertu zer eginkizun betetzen duten emakumeek dokumentalean aurkezten diren publizitate-iragarkietan, eta erkatu gaur egun betetzen dituztenekin.
2. Zer mezu komunikatzen dute bideoan entzun ditzakegun kantak?
3. Zure ustez, gaur egun zertan aldatu da emakumeek telebistan eta jendartean betetzen duten eginkizuna? Zertan hobetu beharko luke?
4. Dokumentalean agertzen denetik zer nabarmenduko zenuke?

Eraildako emakumeei buruzko estatistikak 1999tik aurrera baino ez daude. Izan ere, Ana Orantesen erailketa izan zenetik (1997) hasi zen emakumeen aurkako indarkeria gaur egun duen ikusgarritasuna izaten. Ana telebistako saio batean agertu eta astebetara erail zuen senarrak erre zuelarik. Gaur egun, Indarkeriaren Aurkako Lege Integrala dela-eta, Espainiako legedia munduko aurreratuenetarikoa bat da, baina erailketak emakumeen aurkako tratu txarren izebergaren muturra baino ez dira...

¹ "Beldur Barik" programaren material egokitua www.beldurbarik.org